


# *ttipi-ttapa*

1990eko Maiatzak 10

37. zenbakia

dohain banatzen da

**Herri Urrats;  
maiatzaren 13an Senperen**



# Leitzako **KULTUR ASTEA**

**Maiatzaren 19a, larunbata:**

20,00etan; *Ama Begira Zazu* antzerki saioa, herriko zineman. 23,00etan; Gaiteroak herriaren barna.

**Maiatzaren 20a, igandea:**

*Hiriburu-Leitza Adiskidetasun III. urtea*  
11,30etan; Iparraldeko Herri Kirolen Saioa, *Sarako Indarra* taldeak eskeiniko duelarik herriko plazan.  
12,30etan; Jaialdia *Zuberoko dantzariak*, *Bertsolariak*: Xalbador, Lizaso, Mafukorta, *Abeslariak*: Martikorena, Irigoien anaiak. 14,30etan; *Herri bazkaria-Zikiro jatea* frontonen.

**Maiatzaren 21a, astelehena:**

19,30etan; *Euskara Denona* deritzan Nafarroari buruzko I. Erakusketa Orokorra.

**Maiatzaren 22a, asteartea:**

19,00etan eta 22,30etan; Filma euskaraz *Purpura Kolorea*.

**Maiatzaren 23a, asteazkena:**

19,00etan; Mahaingurua *Sorginkeria-Mitologiari* buruz.

**Maiatzaren 24a osteguna:**

19,00etan eta 22,30etan; Filma euskaraz *Karlistaden Kronika*.

**Maiatzaren 25a, ostirala:**

11,00etan; Umeentzat filma *Abenturak eta Kalenturak*. 15,00etan; Gazteentzat filma *Goonietarrak*. 17,00etan; Txokolatada 17,30etan; Ajedreza plazan. 19,00etan; Hitzaldia *Astronimiari* buruz. 22,30etan; *Txingudi Bing-Bang* Jazz taldea plazan.

**Maiatzaren 26a, larunbata:**

10,00etan; Ume eta Gazteentzat eskulanetako tailerrak *Lur* kolektiboaren eskutik. 16,30etan; Herriko ikasleen antzerki saioak. 19,00etan; Herriko Musika Eskolako Ikasleen saioa plazan. 22,30etan; Herriko plazan eta kaleetan barna *Jauruta 69 Txaranga*.

**Maiatzaren 27a, igandea:**

*X. Eskulangintzaren erakusketa*.  
10,00etan; Txalapartaz eta Trikitrixaz erakusketa-  
ren hasera.

**Antolatzaileak:** Leitzako Kultur  
Taldea



## Publizitaterik onena preziorik tikienean

MODULO BAT

900 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

# NON-ZER

- 4. Beharrezko telefonoak.
- 5. Agenda.
- 6. Irakurleak mintzo.
- 7. Hontaz eta hartaz.
- 9/21. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Urdazubi, Goizueta.
- 22. Erreportaia. SEASKA
- 24. Elkarrizketa. M. KARMELE
- 26. Kirolak. MATTARI - ROMAN
- 28. Osasuna. O.M.T.
- 29. Aro berriaren atarian  
F. ALTZUGUREN
- 30. Merkatu Ttikia.
- 31. Denborapasa. ENBIDO

Maiatzaren 13an, Senpereko aintzira edo lakuaren inguruan dugu euskaltzale guziak zita. Euskara eta elkartasunaren besta, EuskalERRI osoko euskaltzaleen topaleku airosa. **22. or.**



Juan Gabriel Saralegi izan da, Nafarroako Herri Kirol Federazioko Zuzendaritzarako aukeratua suertatu dena. Orain lanari ekitea da gelditzen dena. **26. or.**



Espekta- zio haundia sortua zuen bigarren maketa honen argitaratzeak eta egia erran, ez zioten hutsegin hainbat lagunek beraien-gan jarriak zituzten ilusio eta gogoi. Soinu argia eta indartsua agertu dute eta... jendearen gustokoa izan dela bistan dago. 500 kopiak 2 astez salduak. **24. or.**



Apirilaren 22an, Xorroxin irriatiak antolaturik, omenaldi xarmanta eskeini zioten baztandar eta euskaltzale fina den Mariano Izeta jaunari **7. or.**

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzalleak:

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoi **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Isabel, Jon Larretxea, Patxi Petrirena, Txema Aldabe, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, Mañone, Leitza Euskaltegia, Mikel, Seaska, Mattari, F. Altzuguren, Nafarroako OMT eta Enbidok

**Inprimategia:** Jomisa (Irun)

**Tirada:** 2.700 ale

**Lege-Gordailua:** NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



## BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa .....	088
<b>OSASUN ZENTRUAK</b>	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe .....	594300
Lesaka.....	637428/637336
Leitza .....	510248 / 510573
<b>KONTSULTAK</b>	
Arizkun .....	587039
Gartzain .....	580451
Oronotz-Mugaire .....	592024
Ituren .....	594183
Sunbilla .....	594283
Goizueta .....	514067
Igantzi .....	637755
Arantza .....	634131
Bera.....	630929 / 630036
Etxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
<b>ANBULATORIOAK</b>	
Irun .....	630264/621106
<b>OSPITALEAK</b>	
Irungo ospitalea .....	614444
Nafarroako ospitalea .....	251500
SSko urgenti zerbitzua .....	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia .....	262700
Gurutze Gorria.....	226404
<b>ANBULANTZIAK</b>	
Oitz .....	594242/594342
<b>DYA</b>	
Lesaka (larrialdiak).....	(943)464622
Elizondo (larrialdiak).....	171717
<b>FUNERARIA</b>	
Lesaka.....	637404
<b>SUHILTZAILEAK</b>	
Oronotz-Mugaire .....	592044
<b>GARRAIOAK</b>	
Bidasotarra .....	630279
Baztanesa .....	580129
Leizaran .....	515018
<b>HIRUGARRENADINARENDAKO ZENTRUAK:</b>	
Elizondo .....	580730
Lesaka .....	637154
Bera .....	630104
<b>ABERIAK:</b>	
Iberduero .....	594335/594336



## Hiriburu-Leitza adiskidetasun III. urtea **IX. IPARRALDE EGUNA** **MAITZAREN 20an LEITZAN**

### Haserako helburuak zutik diraute

Aurten XII. kultur astea ospatzen badugu ere, zenbait ekitaldik izan dute bere toki berezia egun hauetan. Horien artean X. eskulangintzaren erakusketa, IX. Iparralde eguna...

Lehenbizikoari dagokionez esan, urtetik urtera gehiago direla herriko partaideak, era honetan -geure ustetan- aberasten doa, herriko jendeak egin ohi duen lanak kaleratzen bait dira, denboraren poderioz "izkutuan" gelditu direlarik. Aurretik eskertu nahi genituzke urtero bere borondatea azalduz, honen oinarria finkatu dituztenak, hots; taloa, piper-opilak, saskiak, gazta... eta hainbat gauza.

Bestaldetik eta goreneko maila lortu duena "Iparralde eguna" dugu. Hasera batetan lurralde ezberdinei eskeintzea zen gure asmoa. Iparraldearekin hasiz, ondorio onak ekarri zituen eta horretan gelditu da egunarte. Asmoak; sasi mugak ezabatzea, orokorki izaera, hizkuntza, lurralde, ohiturak... dituzten traba politiko-administratiboak gainditzea, gu geu garena azalduz. Hau helburua izanik, jai giro alaiean ospatzea da bigarren asmoa. Orañ arte lortu dugula esan dezakegu nahiz eta nahia zabalagoa izatea izan. Beraz, euskaldunak sentitzen garen guztioi egindako eskeintza.

Aurtengo egitarauak berria duen elementua, goizeko Iparraldeko kirolen saioa, Sarako indar taldearen arduraz. Gero bertsolariak, kantariak eta dantzariak.

Ondoren eta ohizkoa bihurtu dena, zikiro jatea. Herriko talde batek prestatzen duela, eta ondorengoak...

Dena den sekulan ez baduzu festa honetaz dastatu, datorren maiatzaren 20ean aukera baduzu, eta ohizko partaide bazara, muga guztiak gainditzera etorriko zarela badakigu, beraz ordurarte agur.



**11 ORTZIRALA**

—Lesakan, gaueko 10,30etan Atxaspi Ostatuan *Josi y los Javisen* kontzertua.

**12 LARUNBATA**

—Saran, Herri Urrats gaua: 6etatik landa txaranga, txistulari, trikitrilari, animazioa. Gau pasa 10ak aldera plaza, *Keñu, Turrutak* eta *Arkaitz*.

**14 ASTELEHENA**

—Igantzín, Euskara Batzordearen bilera, arratsaldeko 7etan Biltokín.

**17 ORTZEGUNA**

—Beran, zinea Lanbide Eskolan, arratsaldeko 8etan *Belagoa* filme emanaldiarekin.

**18 ORTZIRALA**

—Beran, zinea Lanbide Eskolan, arratsaldeko 8etan *Pirinioak* filme emanaldiarekin.

—Etxalarren, Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7,30etan Zentroan.

**20 IGANDEA**

—Beran, Mendigoizale eguna.

—Elizondon, 2.en Milla lasterketa.

**23 ASTEAZKENA**

—Elizondon, Literatur Mintzaldiak Baztango Udalak antolatuta. Arizkunenean arratsaldeko 8etan hitzaldia: *Inazio Mujika* Iradarekin.

**OHARRAK**

—Beran, igerilekuko instalakuntzen adjudikazio lehiaketara eskeintzak aurkezteko epearen mugaeguna maiatzaren 14a da. Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzan jasoko dira.

**GOARDIAKO BOTIKAK**

—Maiatzaren 12-13an, Bera eta F. Iturralde (Elizondo).

—Maiatzaren 19-20an, Arantza eta F. Lezaun (Elizondo).

**LEHIAKETAK**

—Baztanen, Zabalik Baztandarren Biltzarrarako Kartel Lehiaketa, "Nafarroa Euskalerría" le-mapean. Beren lana aurkeztu nahi dutenek, ekainaren 12a arteko epea dute. Xehetasun gehiagotarako Baztandarren Biltzarrara, 22 PK, 31700 Elizondo



★ **KIXKUR** ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637404 - LESAKA

*Lara*

**MUSIKA DENDA**

San Esteban 37


Tfnoa: 63 10 59

BERA

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



**MALDAERREKA S.A.**

EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

## "Gure Mendiak" taldearen argipena

Azken aldi honetako gertaeren inguruan, "Gure Mendiak" taldeak argipen bat egin nahi luke.

Hasteko, "Gure Mendiak" elkarte bat da, eta bere helburua komunalen legearen barrenean erregistroan pasatutako eskriturak defendatzea. Gure motibazioa ez da politikoa. Elkarte honetan Nafarroako afektatu guztiak parte hartzen ahal dute.

Komunalen arazoa Komunal Legearekin hasten da. Lege honek eskubide haundia uzten die Herriko Etxeei lur komunalak zein diren eta zein ez erabakitzeko, hau eskriturak kontutan hartu gabe egiten ahal duelarik.

"Gure Mendiak" elkarteak nahi duena zera da, Herriko Etxeak negoziatzea afektatuekin, eskritura horiek onartzeko Nafarroako Gobernuari presentatu baino lehen.

Igantziko Bentako gertaerari buruz erran behar da protesta bat egin zela, Igantziko Udalak landareak sartu eta itxi egin zuelako mendi bat, partikular batek izanik lur honen eskriturak. Gainera Igantziko Udalak konbenio bat prestatu zuen eta

afektatuek badute urte bateko epea konbenioan sartzeko, epe hau heldu den Uztailan bukatzen delarik.

"Gure Mendiak" elkarteak ez zuen plantarik atera Igantzin. Arazo hauek garbitu arte nahi genuke inork lur problematikoetan ez plantarik sartzea, ezta lurrak hesiz inguratu edo zerkatzea ere.

GURE MENDIAK

## CAN, LAK, CAMP, RURAL...

Denak siglak dira,... berdintsuak, zerbitzuen garaian... gure diruaren agintariak!

Sartzen diegunagatik zein gutxi eman eta zenbat kentzen duten harri-garria egin baldin bazaizu inoiz, neri aldiro egiten zaidana, pentsa ezazu, seriozki, burura etorri zaidan proposata honetan:

### Euskara dela eta... Aurrezki Kutxeenganako presio taldea

—Momentua, ona dirudi, diruaren atzetik erotuak dihardutelarik, %13aren gerran.

—Guztiak euskaratik urrun, *ttipi-ttaparen* kasuan publizitate eskasa edo ausentziak e.a.


Antolamendua horrela izanen zen: afera, eta hori hemendik bertatik egin dezakegu. Zerrenda bat irekitzen dugu, nere izenarekin, agian...

J.I. Paul Arzak CAN Nomina/k.ka Nirekin bat zatozten guztiok *ttipi-ttapara* bidali izena eta hiru hilabete barru, bilera bat eginez, gure dirua nora pasa dezakegun erabakitzen dugu. Bitartean Aurrezki Kutxa guztiari aurre-abisua emanen diegu. Kuestioa, nere iduriri, izen ugari lehen bait lehen biltzea izanen litzateke, ekainaren bukaerarako, alegia; horrela uztailatik presionatzen egonen ginateke.

Gauzak ez nahasteko *ttipi-ttapara* bidaliko duzuen gutunaren azalean, "Euskara dela eta... Aurrezki Kutxeenganako presio taldea" izenburua paratu, errazago izanen baita. Esker mila.

J.I. PAUL ARZAK

*Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izendeituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzetik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz agitaratuko genuke.*



Baztan, Bidasoa eta Male-  
rrekako etxe, baserri, pisu,  
bajera, eraikitzeo lurrak  
eta eremua duten borden  
berri ematen da

Jose Antonio Elizondo  
EZKALO


Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8  
DONEZTEBE





Arin eta bixkor dantzatu zuen lerroaren buruan

Apirilaren 22an, Xorroxin irratiak antolatuturik  
**Mariano Izetari omenaldi  
 xarmanta eskeini zitzaion**



Bazkarian, Bortzehunen bat lagun elkartu ziren



Oroitzarri ugari eskeini zioten Marianori

Baztandar ugari izan ziren eguna giro ederrean pasatzerat eta bidenabar Mariano Izetari beren goxotasuna eta adiskidantza eskeiniz, apirilaren 22an elkartu zirenak.

Gure aldetik, zorion eta eskerrik beroenak Marianori, eguneroko lanarekin duen hoberena euskarari eta herriari eskeintzeagatik. Eskerrik asko eta segi bixkor.

**GOYA**

JOSTAILUAK  
 JANTZIGINTZA  
 OPARIAK  
 BURDIN TRESNERIA  
 Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

**OSKORRI  
 LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245  
 ORONOTZ-MUGAIRE

**B** RADIO  
 BIDASOA

**SUKALDE ALTZARIAK**  
 Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

**TELEBISTAK  
 BIDEOAK  
 ELEKTROGAILUAK**

**SALMENTA ETA  
 KONPONKETAK**



# CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi  
Gibel-gizena  
Urdai azpikoa  
Ahate-hegalak  
Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07  
BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA



## LACOSTA ANAIAK

TAILERRA  
Zaldubia Poligonoa  
Tfnoa.: 45 21 19  
IRURITA

## BATZOKI

JATETXEA  
OSTATUA  
Tfnoa.: 63 79 31  
Lesaka

## SASKI ZAR

Ostatua  
Lesaka

## FONDA SATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27  
LESAKA

Santiago  
40



ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA



## ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



## SUMINISTROS YANCI

<<GODIN>> Tximiniak eta berogailuak  
BAINUAK ETA MOBLERIA  
<<PORCELANOSA>> eta <<VENIS>>  
zeramikak

Zaldubia industri poligonoan  
Tfnoa.: (948) 580 109 IRURITA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

## IRUDIAK

BIDEO PRODUKZIOAK

- Ezkontzak, jaunartzeak,...
- Erreportaiak

Tfnoa.: 63 13 36 - BERA

## Matxaingo urak herriaren eskaria hornituko du hogeitabortz urtez



*Taboak karretera bazterretik ekarriko dituzte*

ROMAN HARRIBILAGA

Aitzinera doaz, iragan otsailaren azken aldera hasiera eman zitzaizen etorkizunean Berako herria hornituko duen Matxain edo Arregi alderdiko ura ekartzera lanci. Era honetan, finkatutako plangintzaren arabera, uraren bideraketarako hodieira edo tuberia dagoeneko Iruñea-Irun errepidera iritsi da, bi mila metro inguru mendian barrena egin ondoren.

### Baliabide berrien ekarpena

Udalak egitasmo honekin lortu nahi duen helburu zehatza Berak hurrengo hogeitabortz urteko epean izanen duen ur eskasiaren hornidura ziurtatzea da baliabide berriak ekarriz. Hori dela eta, aurre azterpen batetan oinarrituz, etorkizunean udalerraren ur beharrak, sare orokortetiko hartuko ez duen sakabanututa legokeen jendea zenbatu gabe —baserritarrak, etab.—, orduan edu-

kiko duen 4.358rainoko hazkundera ezagutuko lukeen biztanlegoaren arabera eginak dira ikerketak.

Beraz, eta gaurko 16,47 l/s eta etorkizunerako 32,72 l/s eskariak kontutan hartuz, ur emariaren defizita hogeitabortz urte barru 26 l/s izanen omen da ikerketek adierazten dutenez.

### Egitasmoaren ezaugarri nagusiak

Matxaingo ura herrira ekartzeko 7.061m hodieira paratu beharko da, ibilbidea 2km inguru, mendiz tarte bat eginez, karreteraz Bidasoa ibaiaren ezkeraldetik bertzea, gero izen bereko kaleko espaloi azpitik Udalteko plaza goiti Ezpondakoborda alderdian eraikitzeko ziren araztegi edo depuradora eta 2.000 m<sup>3</sup>ko biltegiara iristeko.

Hala ere, egitasmo honek azken orduko zenbait aldaketa izanen du, hala nola, eta Ezpondakobordako maldak ur bolumena kontzeko ber-

me edo garantia guztiak eskeintzen ez dituen ez gero, araztegia eta biltegia Suspelttiki auzoan —Kaxematik hurbil— eraikiko dira. Bertze arazoren bat ere sortu da errepidean barrena joanen den hodieira tarte kokatzeko, Bidasoa eta errepide arteko bazterrak arauk eskatzen dutenez hiru metrotako zabalera behar omen du izan. Baldintza hau ez da betetzen eta, nahiz eta Iruñeko Gobernu Errepidea Zerbitzuak bertze hautakizunik eskeini izan —Bidasoa ibaia zeharkatu eta trenbidetik jarraituz—, puntu honi dago-kionez badirudi Berako Udalak jatorrizko egitasmoa buru dadila lortu duela, Iruñean zenbait gestio hildo honetik egin ondoren.

Aldi berean, Ezpondakobordako biltegiara doan ura ere araztegi garbitu beharko da, Legia kalea eta Eztegarra Ibilbidea zeharkatuz, Suspelttiki auzora eramanez eta Ezpondakobordara itzuleraziz.

### Bukaera eta aurrekontua

Ur hornidurako egitasmoaren gauzabidea aurtengo abuzturako egon beharko du bukatuta. Lanak "Mariezkurrena Eraikintzak, S.L. entpresak burutuko ditu 202.818.753 pezetatako aurrekontuarekin, BEZaz gain.

### Aurtengo udal aurrekontua onartua

Ez ohizko bilkuran Udalbatzak azaldutako kideen aho batez aurtengo udal aurrekontua onartu egin du. Beraz, 802.166.472 pezetatako dirutza izanen da, sarrera eta irteeretan, Udalak Bera herrian erabiliko duena; kopuru hau bere historian haundiena izanez.

## 1990ko Udal aurrekontu arrunta onartu da

Aurtengoan Udalak 170.049.533 pezetatako aurrekontua izanen du

M.K.T.

Aurrekontu hau onartzeko bi bozketa eman ziren, lehenengoan behar adinako kopurua ez bait zen lortu, PNV taldekoek kontrako botoa eman ziotelako.

Alkateak bere taldearen arrazoiak azaltzean zera adierazi zuen, bera ados zegoela aurrekontuekin, berak idazkariaren laguntzarekin egin bait zituen. Hala ere, azken orduan aldaketa bat aurkeztu zuten EAkoek HBren onespenerekin. Aldaketa hau Otxogorriean egiten ari diren erakuntzaren defizita betetzeko izanen litzateke, 10 milioitako partida berezi batez.

PNVkoentzat ez da zilegi diru publikoak ondasun pribatuak ordaintzeko erabiltzea. Otxogorriena Patronato baten esku dago eta orain Ikastolari uzteko negoziaketetan dago.

J. L. Etxegarairen hitzetan, Ikastolak Irain eskolak bezalako diru kopuruak jasotzen ditu obrak eta komedorea ordaintzeko; honi gehitzen bazaio obrak egiteko tasaren exenzioa, hiru miloi t'erdi baino gehiago jaso ditu Ikastolak aurtengo.

Honez gain, alkateak erran zenez, eskaera formalik ez da egin, ez eta justifikatu ere orain aurrekontua 40 milioitara igotzen duten gastu berriak.

Ondoren, J. E. Txoperenak hartu zuen hitza eta azaldu 10 milioitako partida hau gastuak gehituko direla aurrikusiz onartzen dela, eta honek ez duela erran nahi ez osotara gastatuko denik ez eta justifikatu

gabe gastatuko direnik ere.

Forma akatsari buruz, berriz, benetako arazoa gordetzeko erabilitako argudioa dela adierazi zuen HBko zinegotziak; alegia, PNV taldea ikastolari edozein laguntza ematearen aurka egon dela.

J. D. Ayala, EAko zinegotzia orduan iritsi zenez, berriro bozketa egin zen, oraingoan aurrekontuaren onarpena lortuz.

### Konbentua Fabrikarentzat

Denboraren poderioz edo ongi pentsatu ondoren eta suerte pixka

batekin argitzen ari da Konbentua-ren arazoa. Orain urte batzu zenbait taldek beretzat eskatzen zuten arren, —Beti Gazte, Ikastola, Lesakako Euskaltegia, gazte taldeak, ea. — gaur egun, batzuk guttienez, beren irtenbidea lortu dute; hau da, Ikastola Otxogorrienera, Beti Gazte Alondigara ...

Bertzalde, Principe de Viana-k ez du problemarik ikusten Lesakako Laminazioak Konbentua-rekiko dituen proiektuak aintzineratu eramateko eta horrela, konbentua-ren zati bat botatzeko.



## Ur-depositoa egiteko erabiltzen ari den lur-eremuaren erosketa, onartua izan da azkenean

Lizardibaita izeneko alderdian ur-depositoa egiteko erabiltzen ari diren lur-eremua erostea —8.243 m<sup>2</sup> guztira— onartu zuen Udalak apirilaren 6an egindako ohizko udal-bilkuran.

Izan ere, joan den urteko abuz-

tuan alkateak hasitako erosketa tramiteak ezin izan dira orainarte burutu, HB eta EAko kontzejalek gogorki salatu bait zuten, tramite horiek gainontzeko udal-partaideen eritzia kontutan hartu gabe egin izanak.



## Joan den urtean, sosa mugimendu haundia Herriko Etxean

133 milioi gastatu eta 139 bildu

PELLO APEZETXEA

1989an Udalak gastatu duena 133 mlioi izandu da, bildu duena berriz 139 milioi. Bien arteko diferentzia gehi urtearen hasieran zegoena batuz, 17 milioi gelditu dira herriaren aldekoak urtearen azkenean. Gastuaren zati haundiena herriko obretan joan da, diru sarrera nabariena kanpotik etorri direlarik, Nafarroako Gobernuaren kutxatik bereziki.

Gastu larrienak aipatzekotan, hauek dituzu:

- Bideetako zola breaztatzen 68.774.284;
- Pilota plazan 7.817.660;
- Eskola berrietan 3.710.455;
- Argi indarra baserrietaraten 4.885.121;
- Kontsulta etxean 1.124.577;
- Bortzirietako zerbitzu amankomunatuak 3.835.566;
- Bide konponketak 1.062.212;
- Andreamaritako eta Usategi igandeko bestak 2.066.987 eta enplegatuen soldata gehi asegueroetan 6.363.408 pzta.



Urbanizazio berria Landaburua aldean eginen da

## Hirigintza edo urbanizazio projektua Beheko-Landarako

ISABEL

“UU3” deitzen den urbanizazio projektua egin du Etxalarko Udalak. Landaburutik ur zikinen garbigailu edo depuradora aldera 14.320

m<sup>2</sup>ko azaleraz. Xehetasunen artean aipagarriena hauxe litzateke: 42 bitzita, 21 etxetan banaturik eraikitzen ahal direla.

## IGANTZI

### Igantzikoko Unanuta taldea berriro garaile

Joan den Martxoaren 25ean jokatu zen Nafarroako Haur Kantu Lehiaketaren finala

OSKAR TXOPERENA

Berriro ere lehiaketa honetara aurkeztea erabaki zuen Unanuta tal-



deak eta ez zitzaion batere gaizki atera jokada irabazle suertatu baitziren taldekako sailan. Erran digutenez arerio zailak izan omen zituzten baina beurek abestutako "Agur Nafarroa" izan zen bere sailan juradoari gehien gustatu zitzaiona.

Dagoeneko igantziarrentzat berria ez dela jakin arren aipagarria izan da Isabel Lakarrek gaztetxo hauekin egin duen lana. Ez dira hala ere alferrikakoak izan prestaketetan igarotako orduak. Hauexek dira talde honetako partaideak: *abeslariak*: Itziar Mitxelena, Mikel Txoperena eta Amadeo Arretxea; *akordeolariak*: Gema Sein, Ainhoa Mitxelena eta Leire Arretxea; *kitarra*

*joleak*: Kunde Sein eta Mikel Arburua.

Oraingo talde honetatik hiru dira orain dela urte pare bat lehendabiziko geratu zen Unanu talde haretako partaideak.

### **INEMekin batera egindako lanak**

Aurtengo honetan lau hilabetez aritu dira bi lagun herrian zehar zenbait lan egiten. Lan hauek egiteko materialak Igantziko Udalak ordaindu ditu eta langileen soldatak INEM eta Udalak erdi bana. Lan hauek egiteko langileak INEMen aukeratzen dira, bertan apuntatuta

daramaten denbora errespetatuz beti ere. Aurtun Andres Mitxelena eta Jose Javier Iguzkiagirrek egin dute lan.

Hauexek izan dira egindako lanak: Iozango erreka iturriko teilatua eta gainerakoak moldatu, ETB antenaren txabola Frain kaskoan eraiki, depositoko kloradorearen leku berria prestatu, eliza eta plaza inguruko zenbait pareta moldatu eta azkenik herriko kaleetako zenbait alkantarilla tubo barrenean sartu.

Merezi du horrelako aukerak aprobetxatzea denbora behar bezala erabiliz gero. Datorren urtean ere lan berriak.

## **ARANTZA**

### **Udalak "San Juan Dermio" Elkartearen lurrak erosiko**

JON LARRETxea

Jadanik urte bete bada, Udala eta "San Juan Dermio" salerosketa akordio batetara iritsi zirela. San Juan Dermio 90en bat soziok osatzen dute eta mendi eremu haundiak ditu Arantzako eremuetan; orain Udalarekin hartutako akordioa, eremu horiek 22.000.000etan saltzea izan da. Elkarte honen jatorria ez da zehazki ezagutzen eta badirudi juridikoki ere ez dagoela erabat legalizatuz eta, hortan ihardute orain elkarte kideak, izan ere beharrezkoa bait zaie salerosketa gauzatu ahal izateko.

Hogeitabi milioitako kostoa ordaintzeko, %19arekin, hau da, 7,6 milioiekin eta gainontzeko diru mailguaren 8 puntuko laguntzarekin kontatzen du Udalak Nafarroako Gobernuak emanak.

Elkartearen papeleo asuntua gehiegi luzatuko den beldurrez eta da-



goeneko bigarren urtez segidan destinaturik daukagun dirua gal ez dadin, dokumentu bat sinatzea nahi du Udalak; non hitzarmendutako akordioak azalduko diren. Dokumentu hau eginez gero, laguntza hori ziurtatuko litzateke.

#### **Eskolako sukaldaria aukeratu**

Bortz hautagai aurkeztu ziren lanpostu honetara eta sikologo baten

laguntza hartu zuen eskolak aukeraketa froga egiteko. Froga sikotekniko batzuk eta elkarrizketa egin ondoren, Sagrario Iparragirre izan zen aukeratua. Beraz, zorionak Sagrario.

#### **Arau Lagungarriak edo "Normas Subsidiarias"**

Jose I. Arribas eta Carlos Urrutia arkitektoek eginen dituzte eta 4.800.000 pezeta kostako dira.

## Udalak soldaduskaren kontrako akordioa hartu

Berako Udala, HB eta EAren proposamenak onartuz

PATXI PETRIRENA

Apirilaren 6an egindako Udal plenoan, Sunbillako Udalak hiru proposamen aztertu eta onartu zituen, funtsean berdintsuak, soldaduskaren kontrako postura garbia agertuz. Aldeko lau botorekin hartu zen erabakia, talde independientetik zeuden bi zinegotziek ez bait zuten botorik eman. Aipatutako idatziak Berako Udala, HB eta EAren ize-nean aurkeztu ziren, eta puntu frankotan antzekoak izanik, hemen laburtuko ditugu nagusienak:

\*Gazteek soldaduskari uko egiteko duten eskubidea aldarrikatu eta objezioa egitera gonbidatzea.

\*Gaur egungo objezio legea ez onartzea.

\*Interesatua legokeenari informazioa eskeintzea.

\*Afera honengatik norbaiti kalterik etorriko balitzaio, laguntza ematea.

\*Udalak bere eginbeharretatik baztertzea soldaduskarako alista-menduak eta gainerako tramiteak.

\*Espainiako Ejerzitoarekin ez kolaboratzea, eta herrian edozein

ekintza militarretarako baimenik ez ematea.

Ikusten denez, orain dela hilabete batzuk Bortzerri edo Bortzirietako Udalek egin zuten bezala, erabaki garrantzitsua hartu du Sunbillakoak, eta gazteentzat batez ere lagungarri gerta daitekeena soldaduskarako deia ren garaia hurbiltzen zaienean. Horrez gain, herrian bertan badago objektorerik, informazioa zuzenean eman ahal izateko.



Amerikanoen bazkaria

### Jubilatuek eta amerikanoek beren besta egin dute

Apirilaren 29an giro ederrean ospatu zuten Sunbillako jubilatuek beren eguna. 61 lagun bildu ziren Ulibeltzak elkartearen bazkaltzen, ondoren musika eta guzi izan zutelarik. Aipagarria da, bakoitzak paratu zituen bi mila pezetekin bazkari ederra eta musika ordaintzeaz gain, diru multxo bat gelditu zela, zozketatik ateratakoarekin batera argentinoen etorrera laguntzeko erabiliko dena. Izan ere, Arkupeak elkarteak erreka guziko "argentinoak" ekartzeko asmoa hartu du Abuzturako, horien artean lau sunbildar. Beraz, agudo gure artean ikusi ahal izanen ditugu.

Amerikanoek ere beren besta egin zuten maiatzaren lehenean. 27 lagun elkartu ziren bazkaritan Ulibeltzak elkartearen, bertze lauk zerbitzari lanak eginez. Aspaldixko etorriak eta etorri berrixeagoak, zaharxeagoak eta gaztexeagoak (67 eta 30 urte bitartekoak), bazeukaten hantxe zer kontatua, giroa eta umorea ... eta dena erran behar bada, guretzat postrea eta kafea ere bai.

## DONEZTEBE

### Aurtengo aurrekontua 130 milioitakoa

TXEMA ALDABE

Doneztebeko aurtengo aurrekontua 129.804.201 pezetatakoa izanen da. Horixe onartu zuten aho batez kontzejalek egindako azken bilku-

ran. Diru sarreretan kontribuzio eta lizentzietan 10 milioi eskuratzen ditu. Zirkulazio zergak, berriz, 4 milioitakoak dira. Transferentzi korronteak dira diru kopuru gehien ematen dutenak, ia 53 milioi, eta

gero "tasak eta bertze sarrerak" delakoa 25 milioi pasatuxeak.

Gastuetan langilegoaren soldatak 33,5 milioitakoak dira, "inbertsio errealak" direlarik diru gehien era-





maten dutenak, 59 milioi hain zuzen.

### **Hurtzaindegia eskoletara pasako da**

Heldu den ikasturtean, orain Udaletxe zaharrean dagoen hurtzaindegia San Migeleko eskolara pasako da. Hurtzaindegiko gurasoek, udalari zuzendutako idatzi batez, horixe bera adierazten dute. Koorporazio kideak gurasoen nahiarrekin bat datoz eta dagoeneko onartua dute "San Migel" eskoletan gela bat egokitzea honetarako. Jakina denez, 3 eta 4 urtetako haurrak joaten dira hurtzaindegira, gaur egun 25 direlarik.

### **50 mila zuhaitzondo landatu lau herrietan**

Doneztebe, Sunbilla, Narbarte eta Elgorriagako parajeetan, Lau herrietako izenez ezaguna den herri lurretan otsailaren erdialdetik hona 50 mila zuhaitzondo landatu dira.



*Doneztebeko San Migel eskola*

Kanpaina honetan birlandatu diren arbolak hauek dira: 28.700 bago, 4.885 arkazi, 8.850 haritzondo amerikar, 2.700 lizar, 2.000 haritzondo hemengoak, 1.000 gereziando, 1.000 iltxaurodo amerikar, 300 hostazuri eta 30 astigar. Hogeiren bat lagun aritu dira lan honetan, gehienak elgorri eta sunbildarrak, diru laguntza Nafarroako Gober-

nuak ematen duelarik.

Heldu den urterako lau herrieta-ko juntak badu asmoa, guttienez 100 mila arbolaondo landatzekoa, horre-geatik garbitze eta hesitze lanak jarraituko dute urtean zehar. Oroie-razi behar bada, iazko abenduan suak eraginiko kalteak nolabait kon-pontzeko egiten ari direla landake-tak.

## **ZUBIETA**

### **Harriak harat eta honat**

JUAINAS

Ez dira modak, noski, beste zer-bait izanen da, baina badirudi, ba-tzuetan, denak batera mugitzen ga-rela Zubieta preziatu honetan. Gaur

eguneko mobida harriena dugu, aste buruetan Zubietak harrobi papera betetzen baitu. Harrobia, ez, hobeki esanda, izatekotan, harrobiren baten eroslearena.

Joanamarikuk, etxe berria egite-ko asmoarekin, harriak kamioika ekartzen ari dira, txoferra eta pluma-ren erabiltzailea seme builoso hori dutelarik.

Anteskoek, berriz, terraza eder bat egin behar omen dute eta igan-dean, apirilaren 29an, lehen erabil-tzen ziren mandosokaren antzekoa jarri zuten martxan, mandoa —garai berriak ez bait dute barkatzen— traktore bihurtu zirela. Seiren bat traktore kontatu nuen nik, bata bes-tearen segidan, harri dotorez be-teak... seguraski gehiago egonen zi-rela... Aurreko egunean, aldiz, trak-toreak kontrako bidea egiten zuten, ostatuko zaborra lekutu nahian. Zer: azkenean,



**Zubietako ostatuaren berritzeak** goi mailako sinadura lortu bait du. Orain, egitea besterik ez da gelditzen. Urte bateko epean lan eta diru ugari mugituko da Zubietan. Afera polita izan daiteke. Lana, lanpostuak, turistak... Momentuz euskal zirkuito bat ireki be-

harko dugu; udarako hamaika (11) etxetan euskal ikasleak hartzeko prest omen bait daude,... segituz, segituz,... Ezkurra erreka Marbella berriren bat eginen dugu, aspaldi esaten genuena azkenean egia: Monteron diskoteke, pistzina errekan, Ferminen bordan albergea...

euskalduntasuna gorde eta zaindu behar dugu, euskarak bizi bait gaitu!

**Oharra**

Hemendik aurrera eta obrak akitu arte, idazkaria (sekretarioa) Eskolako beheko gelan egonen da, ohizko ordutegietan.

**ITUREN**

**Aurtitzeko frontoiaren berrikuntzarako diru-laguntza**

Alcoira egindako bisitaldia, izugarri arrakastatsua izan zen

IBAN ISASI

Iturengo Udalak orain dela hila-bete batzuk Nafarroako Gobernua-ren Kirol eta Gaztedi sailari diru laguntza eskatu zion Aurtitzen dagoen frontoiaren berrikuntzarako, hau, nahiko zaharkiturik aurkitzen baita. Honi erantzunez, Kirol eta Gaztedi Sailak 1.293.750 pezetatako diru laguntza eman du berriki. Aipatu behar, azkenaldian Ituren eta bere auzoetan zaletasun haundia sortzen ari dela bai esku zein palapilotara.

**Zakurren txertaketa eguna**

Urtero egin ohi den bezala erriabiaren kontrako txertaketa kanpaina berria hastear dago eta oraingoz, aldaketarik ez badago, Iturenen egun hauetan eginen dute: Ituren eta Lasagakoak ekainaren 28an Udale-

txean arratsaldeko 3etatik 4,30ak arte; Aurtitzkoak egun berean frontoian 4,30etatik 5,30etara.

**Izugarrizko arrakasta Alcoi-en**

Joaldun, trikitilari, aizkolari, harrijasotzaile, sokatiralari eta ahari jokurako ahariz hornituriko espedizioa joan zen Alcoi-ra "Moros y Cristianos" bestan parte hartzeko. Erran behar da, guzti hauek izan zuten arrakasta izugarria izan zela eta bertan aurkitutako besta hagitz ona.

**Bideo emanaldiak Lankide-Aurrezkiak antolatuturik**

LAKek maitzaren 9 eta 10ean eta uztailaren 23 eta 24ean bideo emanaldiak antolatu ditu Iturengo Eskoletan. Bideo hauek euskaraz izanen dira eta arrakastatsua izanen direlakoan gaude.

**Zorionak Maika eta Eusebiori,** Maika Ariztegik lasterka eta Eusebio Fagoagak bertsoetan lortu dituzten garaipenengatik. Zorionak beraz eta segi bixkor.



Hartza ere Alcoi-ra joan zen

**ARROPA DENDA**  
 MERCERIA  
**FANTXIKE**  
 JAIME URRUTIA, 24  
 TFNO. 580312  
 ELIZONDO

**CERVANTES**  
**HELVETIA SEGUROS**  
 Era guzietako aseguroak  
 Eska itzazu aurrekontuak  
 Juana M. Urrutia

**GRUPO**  **ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
 Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

Xorroxin Irratiak antolaturik

## Omenaldi beroa Baztango herriak Mariano Izetari eskeinitakoa

MAÑONE

Apirilaren 22an Baztango Herriak omenaldi beroa eskeini zion Marianori. Ekitaldiak gozetik hasi ziren Elizondoko Plazan, dantzari batek dantzatu zion aurreku batez. Ondoren, Maurizio, Javier eta Felixek mutil dantza batzuk jo zituzten, Mariano Izetak lerroaren buruan dantzatu zuelarik.

Gero, "El Pilar" pilotalekuan eman zitzaion segida omenaldi ekitaldiei. Bazkal aintzinean, lehenik Elizondoko Korala eta gero Sunbilla, Amaiur eta Arizkungo sokatira taldeak aritu ziren, eta bi terdiak aldera, 500en bat pertsona bildu zituen bazkariari eman zitzaion hasiera. Jose Fermin Argiñarena, Lazkano, Arozena, Mañukorta, Elizagoien eta Amorena bertsolariak izan ziren bazkal-ondoa alaitu zutenak eta berehalaxe, erakunde eta elkarte ezberdinak beren oroigarriak eta agurrak eskeini zizkioten Marianori; bertzeak bertze, Arkupeak Ju-



bilatu Elkartea, Elizondoko Korala, Euskadi Irratia, Irulegi Irratia, Baztango Txirrindulariak, Baztango Eskubaloitza Taldea eta Xorroxin Irratia bera.

### "Izan zaitezte beti euskaldun"

*"Bihotz bihotzez estimatzen dut, ez dut hainbertze merexi. Nik egiten dutan lana edozeinek egin dezake.*

*Lanean jarraituko dut hil arte. Eskerrik beroenak eman nahi diet Baztandar guztiei eta batez ere, Xorroxin Irratiari"* zioen Marianok jasotako zorionei bere esker ona agertuz.

Jendearen gozamenerako, giro bero horretan etorri ziren Mikel Laboa, Xabier Soubelet eta Eusebio Izetaren (Marianoren anaiaren) kantak eta Elizondoko Txaranga eta Lesakako trikitilarien animazioa.

### "Euskara da nire bizia"

Euskal kulturaren alde lan egitea izan da Marianoren kezka nagusia. Jo ta fuego bertsogintza indartzen aritzeaz aparte, aldizkari eta irratietan egindako hainbat kolaborazio eta idatzitako bi liburuak ere aipagarri dira; 1962an "Dirua galgarri" eta 1982an "Nigarrez sortu nintzan". Gaur egun Baztango Hiztegi Tipia ari da prestatzen eta honez gero 2.000 hitz bilduak ditu. Horretaz aparte Baztan aldeko 250en bat erranairu edo esaera zahar ere jasoak ditu, ahal bezain azkar argitaratzeko asmoz.

## Union Baztanesaren botoez, kaposantua haunditu ahal izateko lur eremu bat desjabetuko da Oronotzen

HB eta BA: desjabetzera jo baino lehen, hobe litzateke denen arteko akordioa

J.M.I.

Oronotzeko kanposantua haunditu ahal izateko, Baztango Udalak, Union Baztanesaren aldeko botoei esker, Zozaiako bi auzokideenak diren 800 metrotako lur-eremua desjabetzea erabaki du berriki.

Desjabetze hau egitea, "interes publiko"ko eta "premiatzeko" dela erranez oinarritu zuten Union Baztanesakoek.

HB eta BAKoen ustetan, alde guztiak batera etorriko liratekeen

akordioaren bat bilatu beharko litzateke; Zozaian aspaldidanik ur-eskasia dela eta bizi duten problemari konponbide bat eman ahal izateko eta baita Oronotzeko kanposatuaren haunditzea ikusteko.



## Berrogei lagun elkartu ziren “kinto” besta ospatzeko

Urdazubi eta Zugarramurdiko 1960-64koek, ekainaren 2an egingen dute Armuan

KORO IRAZOKI

Apirilaren 14ean Herriko Etxeko Ostatuan “kinto besta” ospatu zen. Bainan gure herri hau ttarra izanik eta besta dexente bat egiteko jendea behar baita, bortz kinta batean elkartu ziren eta horrela 1948tik 1952rainoko berrogeiren bat lagun juntatu ziren. Afari ona eta giroa ere ezin hobea, iparraldeko “Izen Gabek” taldearen animazioarekin. Hau ikusiz bertze urteetakoek ere pentsatzen hasi dira ez dela ideia txarra...

Bertze abisu bat emateko aprobetxatuko dugu baita: 1960-64ko kintak gogoan hartu aurten ere ekainaren lehenbiziko larunbatean Urdazubi eta Zugarramurdikoak, bide erdian (Armuan), elkartuko garela joan den urtean bezalaxe. Laster ikusiko dituzue hor bama kartelak.



Behitiko Karrika

### Aste Sainduan kanpotar pila bisitari

Gezurrik bota gabe, normalean herriak 300 biztanle baldin baditu, egun horietan 600 izatera ailegatu zela erran daiteke. Horietatik gehienak Gipuzkoa eta Bizkaiatik etorri dira baina aurten katalunyar franko

ere ikusi omen da.

### Karridak konpondu behar omen dituzte

Ilusionatuak ginelarik gure motokross zirkuitoarekin, orain txori bat agertu da “karridak laster konpondu behar dituztela” erranez. Egia ote da?

## URDAZUBI



Herriko gazteak inauterietan, otsailaren 26an eta 27an

(bertze aldean segitzen du)

## Urdazubiko Pala Txapelketa jokutzen ari da

ALIZIA OLAIZOLA

Hogei bikotek hartzen dute parte tradizio luzeko txapelketa honetan. Hauetarik gehienak gazteak baldin badira ere, badaude 40 urteak beteak dituztenak ere. Urdazubikoez aparte, Zugarramurdi eta Baztango jokalaria ari zaizkigu. Egunero bi partidu jokutzen dira gaueko 8,30etatik aintzinerat eta hiru maila edo kategoritan banaturik. Izan ere, ordu horretarako zenbait gaztek lana bukatu eta pilotan jokatzeko astia hartu nahi izaten dute.

Finala maiatzaren bukaeran, herriko bestetan, jokatuko da.

### Herriko Bestetarako pres-taketak aintzinduak daude

Maiatzaren 23tik 27ra ospatuko dira aurtengo bestak. Gazteek, antolaketa bilerak larunbat arratsetan izaten dituzte "Carretero" ostatuan. Urte honetako emisio arduradunak hauexek ditugu: Joxemari Sarratea, Juan Felix Arburua eta aurtan sartu berriak diren Jabier Larralde eta Fernando Mujika.

### Moto-Kross-erako entrenamenduak

Azken urte hauetan egin den modura, aurtan ere badago moto-krossa egiteko asmorik. Pista Leor-

las auzoan dago eta denetara 10en bat kilometrotako luzera du.

Asteburu gehienetan, hemengo lau gaztek entrenatzen dute. Haue-tariko batek, Iñaki Sarrateak, joan den urtekoan parte hartu zuen eta lehendabiziko aldia izateko, ez zen batere gaizki geratu. Geroztik ber-tze zenbait txapelketetan aritu izan da sariren bat irabaziz. Entrenatzen egoten diren bertze hiruak hauexek dira: Joxemari Ariztia, Martin Ariz-zaleta eta Txomin Iribarren eta be-harbada, aurtengoan parte hartzera animatuko dira.



## GOIZUETA

### Goizuetako herriak omenaldi beroa eskeiniko dio Juan Miguel Apezetxeari

KORO ETXEBERRIA

Erraz esaten da honako eta hala-koak hamar urte (10) daramatza es-petxean. Ba, hau egia da gure herri-ko semea den Juan Miguel Apeze-txearen kasuan; 10 urte betetzen ditu hil honetan.

Burruka hontan dirauten beste preso politikoez bezalaxe, Gobernu Zentralak ezarritako sakabanatze neurriak direla eta hainbat espetxe igaro ditu: Soria, Alcalá, Herrera, Carabanchel, El Dueso eta Burgos.

Bera barrutik, zoritxarrez, eta gu kanpotik, ekainaren 1, 2 eta 3an os-tirala, larunbata eta igandean ome-naldi haundi bat eskeini nahi diogu goizuetarrok, bertako seme honi.

Egun hauetan honako ekintzak burutuko dira: *ostirala*: bideoa eta hitzaldia Gestoren Batzorde Nazio-naleko partaideek emango dutelarik. *Larunbata*: hitzaldia Elkartasuna

aretoan gestoretako partaide bat, mediku bat eta abokatu batek eskei-nia, Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Lazkano eta Manolo Arozena, herri-ko trikitrilariak afari herritarra Umore Ona elkartean. *Igandean* omenaldia familiari eskeinia.

Honako hau izango da, batz

beste egun hauetako egitaraua. Ongi etorriko zaigu denon oroimenean Juan Miguel egotea, bera ezagutu ez duten gazteek ere badakitenez zer suposatzen duen borroka honek eta bera ez egoteak denon gogoetan dagoen frogaren lekuko ekintza guztietan parte hartuko dutela da.



Aurten "Euskara Denona" erakusketarekin

## Leitzako XII. Kultur Asteari maiatzaren 18an emanen zaio hasiera

MIKEL

Hamaika kultur aste ospatu ondoren eta muga non dagoen jakin gabe aurten XII. edizioari ekinen diogu. Aspaldi hartan Ikastolak hartu zuen antolaketaren ardura eta orduan finkatu ziren helburuek bizirik diraute. Alde batetik Kultur mailako zenbait ekitaldi eskeintzea luzetxoa den aste honetan eta bestetik herriko taide gehienak inplika araztea honen antolaketan. "Kanpotik" ikusirik, Kultur Astea aste bat besterik ez dela badirudi ere, aurreko lanak, batez ere, oso haundiak dira. Honen prestaketak, hiru hilabete behar izaten ditu ahal den era hoberenean gauzatzeko.

Honek dudarik gabe, diru handiren erabilkera suposatzen du noski. Aurtengo aurrekontua 1.700.000 pezetatara iristen da kontuan hartuz aurreko likidazioa 173.000 pezetaren "pufoarekin" gelditu dela. Hala ere aurretik herritarren, komertzioak direla eta... laguntza eskertu behar, Udalak eta Nafarroako Gobernuak ematen duenarekin batera gastuak gaintitzen laguntzen dutelako. Falta dena sarreren bidez pagatu behar.

Dena den gure ustez gusto guzietara iristen garela hau antolatzerakoan, antzerkia -aurtengoak pena merezi du-, trikitixa, liburu erakusketa, hitzaldiak, filmak, umeentzat prestaturiko ekitaldiak, Jazz musika, eskulangintza erakusketa, Iparralde eguna, koadroak eta aurten "Euskara Denona" erakusketa Nafarroako Gobernuak antolaturik Udal aretoan. Animo eta parte har ezazu.



Leitzako Kultur Astea

### Bi lanpostu Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarri Gizarte Zerbitzurako

EUSKALTEGIKO IKASLEAK

Gizarte langile bat denbora oso-rako eta Administrari laguntzaile bat denbora erdirako kontratatu nahi dituzte. Kontratuen iraupena urte batekoa izanen da. Soldata, Nafarroako Administrazioaren mail berdineko funtzionarioei dagokiena da.

Aurkezteko INEMeko zerrendan erroldatua egotea beharrezkoa zen.

Eskaera eta *curriculum vitae* aurkezteko epea 1990eko apirilaren 17an bukatu zen.

#### Kanping eta ostatu bat eraikitze-ko ideia-lehiaketaren emaitzak

Kanping eta ostatu bat eraikitze-ko asmoarekin ideia-lehiaketa bat

proposatu zuen Leitzako Udalak. Juan Ramón Lebron Zabaleta eta beste hemeretzi auzokideek idazki bat protesta gisa aurkeztu zuten. Idazki horren bidez kanping eta ostatua Estazio Zaharrean ez kokatzea eskatzen zen. Hala eta guztiz ere, Udalak ideia-lehiaketari jarraia ematea erabaki zuen aho batez.

Jose Luis Fernandez Apeztexea eta Alberto Izko Aranek egindako "Pakea" proiektuari eman zitzaion 200.000 pezetatako lehen saria. Bigarren eta hirugarren sariak "Iparralde" eta "Mas Madera!!" proiektuek jaso zituzten, 150.000 eta 100.000 pezetatako saria.

#### I. Saskibaloitxapelketa

Aurrera K.E.ak lehen saskibaloitxapelketa antolatu du. Bertan ondorengo zazpi talde hauek parte har-



tzen dutelarik: Kaxiano Bulls, Putakumeak Rockers, Zilborra de Zagret, Zeltas All Star, Makabi ke te la ví, Golden State Guarros eta Txikizion Laikers.

Herriko gazte ugarik parte hartzen du. Hau gutxi ez balitz, nahiko maila ona erakusten ari da, hirugarren ihardunaldian eman diren emaitzak ikusi besterik ez dago:

Putakumeak Rockers 58, Zeltas All Star 47; Zilborra de Zagret 69, Txikizion Laikers 29; Makabi ke te la bi 52, Golden State Guarros 30.

**EZKONTZAK**

**Jose Juan Lanz eta Patricia Garrido**, Berakoak, apirilaren 16an.

**Jesus M. Prim Ustariz eta M. Dolores Agerrebere Zelaieta** Irurita eta Elizondokoa, Apirilaren 7an.

**Esteban Agesta Zozaia eta M. Isabel Latasa Mitxeo**, biak Sunbillakoak, apirilaren 21ean.

**Antxon Etxegia eta Maria Centenera**, biak Lesakakoak, martxoaren 24ean.

**Manuel Rodriguez Gonzalez eta Victoria Lasa Etxarte**, Irungoa eta Lesakakoa, apirilaren 28an.

**JAIOTZAK**

**Joanes Errea Iribarren**, Erratzukoa, otsailaren 28an.

**Iñaki Petin**, Sarakoa, martxoaren 14ean.

**Joan Blanco**, Sarakoa, martxoaren 28ean.

**Jon Olo Almandoz**, Urdazubin, martxoaren 13an.

**Ander Erasun Sansebastian**, Iturenen, apirilaren 9an.

**Josune Agirre Maritorea**, Sunbillan, martxoaren 23an.

**Miren Garmendia Migeltorena**, Amaiurren, apirilaren 6an.

**Sergio Mitxelena Gortari**, Arizkunen, apirilaren 15ean.

**Josu Agerre Iraola**, Almadotzen, apirilaren 15ean.

**Sergio Eskudero Egea**, Iruritan, apirilaren 16an.

**Mikel Goienetxe Pikabea**, Beran, apirilaren 3an.

**Pedro Jose Martin Oiartzabal**, Donezteben, apirilaren 2an.

**Jose Luis Irurita Rubio**, Donezteben, apirilaren 10ean.

**Asier Biurrarena Ubiria**, Lesakan, apirilaren 17an.

**Itxaso Fagoaga Etxarte**, Lesakan, apirilaren 25ean.

**HERIOTZAK**

**Manuel Varela Sarratea**, Urdazubin, apirilaren 19an, 83 urte.

**Margarita, Arburua Lekuberri**, Zugarramurdin, apirilaren 12an, 86 urte.

**Juana Baleztena**, Zubietan, apirilaren 14ean, 86 urte.

**Francisco Telletxea**, Zubietan, apirilaren 20an, 72 urte.

**Maria Baleztena**, Zubietan, apirilaren 30ean, 85 urte.

**Jose Mari Zubieta Telletxea**, Lesakan, apirilaren 15ean, 74 urte.

**Juana Josefa Altzugarai Etxebeste**, Lesakan, apirilaren 24ean, 96 urte.

**Maria Argain Maritxalar**, Elizondon, apirilaren 4ean, 88 urte.

**Patrizio Esarte Berrade**, Elizondon, apirilaren 4ean, 78 urte.

**Fca. Antonia Dorregarai**, Elizondon, apirilaren 7an, 78 urte.

**Jose Bengoetxea Gastiarena**, Arraiotzen, apirilaren 8an, 84 urte.

**Gabriel Urdaniz Zozaia**, Arizkunen, apirilaren 8an, 74 urte.

**Josefa Jaurena Migelikorena**, Elizondon, apirilaren 11an, 86 urte.

**Ana Salaburu Orayen**, Elizondon, apirilaren 12an, 77 urte.

**Fernando Rodriguez Ruiz**, Elizondon, apirilaren 24ean, 81 urte.

**Jose Miguel Zozaia Gonzalez**, Donezteben, apirilaren 18an, 61 urte.



# IRUBIDE


ostatua  
erretegia  
LESAKA — 63 71 27

# ATERPE

**jatetxea**

Mendi ibilaldietarako  
Mountain bike bizikletak  
alokatzen ditugu  
tfnoa: 63 41 79

**ARANTZA**



# EUSKALDUNA

JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

# BEINTZAko OSTATUA

Tfnoa: 59 40 14

**BEINTZA - LABAIEN**

# Zizka ostatua

Altzate - BERA

# Errekalde

ostatua

**BERA**

# MEKANOTERAPIA ZENTROA

## LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

# KONTZERTUAK

## ATXASPI

OSTATUAN

Ortziral gauetan  
**LESAKA**



*Lore eta landareak*

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
**LESAKA**

# PIZZIO OSTATUA

Tfnoa.: 63 07 88

**Altzate - BERA**



# KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

**BERA**



*Oinetakoak*

San Miguel 2, DONEZTEBE

# IZANA ILEAPAINDEGIA

Bidasoa 81, Behea

Tfnoa.: 63 10 55 - **BERA**

# ARKUPE GOXOTEGIA

Tfnoa: 45 20 21

**IRURITA**

*Deñe*

LENTZERIA  
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA

# yoan

Zapatadenda

Beraketa, 13 Tfnoa: (943) 62 15 74

**IRUN**

# Ekisaro

**jatetxea**


Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013

**ELIZONDO**

# Publizitaterik onena preziorik tikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

# Herri Urrats; Iparraldeko Ikastolen Besta



## Maiatzaren 13an Senpereko aintzira edo lakuan dugu euskaltzale guziak zita

1969ko Apirilean Iparraldeko lehen ikastola ireki zen 4/5 haurrekin, familia batzuek eta erakasle baten nahikundeari esker, Euskal Kultura eta erakaskuntza zabaldu asmotan.

Gaur egun, hogeitabortz urte geroago, *SEASKAK* —ikastolak batzen dituen erakundeak— 912 ikasle kudeatzen ditu; beroiek 16 ama-ikastola, 10 lehen mailako eta Kanboko ikastegian biltzen direlarik ikasterat.

Horrezaz gain, 88koa da langile kopurura erakasle eta bertze lanpostuak kontutan izanik.

Aurten zazpigarren aldiz antolatzen da Herri Urrats besta.

1984an bortz mila lagunekin hasi zen besta hura iaz berrogeitamar mila lagun biltzerat iritsi zen, Iparraldean euskararen alde antolatzen den bestarik haundiena izatera iritsiz.

**B**ere hogeitabortz urteko ibileran zehar, Seaskak asmamen nasaia edo ugaria ukan behar izan du (eta behar izanen du oraino) urtetik urtera goratzen ari zitaion budgetarentzat diru iturriak segurtatzeko. Lehen-lehenik oroitu behar dugu ikastola. Euskaldunak Euskalerrarentzat sortutako eskola dela. Betidanik gure kulturaren eta bereziki gure hizkuntzaren kontra erasoak jasan behar izan ditugu eta horretarako estatu zapaltzaileak erabiltzen duen instrumentorik garrantzitsuena beren eskola da.

Oraino sortu diren ikastolak beren eraginkortasuna erakutsi dute berreuskalduntze prozesuan eta ho-

regatik dira beharrezkoak. Izan duten arrakasta ikusiz, estatua behartua aurkitu da inizatibak hartzerat. Ikas prozesu guzia gure gisan euskaldundu nahi badugu, ikastolak azkartu behar ditugu, Euskal eskola publikoa lortzeko.

Baina, Ikastolak sortu, indartu eta aintzineratuz ateratzeko egin behar izan den ahalegina ez da apala izan: finantziaketa kanpaina, herri besta, kantaldiak, herrien-arteak, futbol partiduak edo oraino duela 7 urte, Senpereko lakuaren inguruan antolatzen hasi zen Herri Urrats dira lekuko.

### Herri Urrats euskara eta elkartasunaren besta

**H**erri Urrats antolatzeko ekimena 1984ean ukan zuen Seaskak; Gipuzkoako *Kilometroak*, Bizkaiko *Ibilaldia*, Arabako *Araba Euskaraz*, eta Nafarroako *Nafarroa Oinez* herri besta haundien hildotik jarraituz.

Herri Urrats besta bat da. Iparraldean euskal kulturaren alde antolatzen den bestarik haundiena. Euskadiko zazpi zokoetako euskaldunak biltzen dituen besta. Denbora berean sinbolu bat da guzientzat, argi eta garbi erakusten duelako euskararen aldeko borroka mugaren bi aldeetan ematen dela, euskaldun guziena dela. Iparraldeko jendeari kuraia eta aintzina joateko indarrak ematen dizkigu besta honek, ikusten dugulako euskararen aldeko mogimendua ez dela hiruzpalau zoroen ametsa, populu oso batena baizik.

Besta eder honi esker Seaskak bere kolegiari, hots Xalbador ikastegia kokatzeko etxea erosi ahal izan du Kanbon. 1990ko Herri Urrats orain artekoak bezain arrakasta haundia ezagutuko duela espero dugu, datoren Maiatzaren 13an Senperen.

## Egitaraua

TXARANGAK  
GAITEROAK  
TRIKITRIXAK  
TXISTULARIAK  
ABESLARIAK  
TXONTXONGILUAK  
ESTROPADAK  
HAIZKOLARIAK  
ERROMERIA  
SOKA TIRA  
HAURRENTZAT JOKOAK  
ESKULAN ERAKUSKETA

* BAZKARIAK	COMIDAS	REPAS
* IKUSGARRIAK	ESPECTACULOS	SPECTACLES
○ ARGITASUNAK	INFORMACIONES	INFORMATIONS
● KOMUNAK	W/C	WC
◆ SARRERAK	ENTRADAS	ENTREES
■ SENDAGILEAK	ENFERMERIAS	INFIRMERIES
□ OSTATUAK	BARES	BARNS
△ ERAKUSKETA	EXPOSICIONES	EXPOSITIONS
● APARKALEKUAK	PARKING	PARKING
△ HAURREN TXOKOA	JUEGOS	JEUX
◆ SALMENTAK	VENTAS	VENTES

**SARRERA NAGUSIA**  
ENTREE PRINCIPALE

*HERRI URRATS*  
*XALBADOR IKASTEGIA*  
*64250 KANBO*  
*TÉL. 59.29.37.76*

Baina, geroari begira Herri Urratsen arrakasta eta beharra ez dira bururatu, Hezkuntza Ministeritzak Seaskaren erakaskuntza sistema osoa beregain hartuko ez duen bitartean.

Herri Urrats bezalako besta bat

baitezpadakoa izanen da ikastolen funtzionamendurako eta garapenerako. Eta delako beregainhartze hori, agian laster gertatuko den egunetik gerora ere. Herri Urrats oraino luzatzen beharrezkoa izanen zaio euskarazko kulturari.



Egun haundia etorri zaigu Herri Urrats du izena Denak jin dira beti bezala Pesta hau bait da denena Bada jantoki eta ostatu Ustaritze hoberena Izan dadila maiatz egun hau Zuendako ederrena

## Kanka: "Lesakako *mobidari* irtenbidea bilatzen"

Orain dela bi urte Lesakan osaturiko taldea dugu Kanka. Mazi —kitarra—, Nobeto —baxua—, Zerunta —kitarra—, Tomas —bateria— eta Javier —ahotsa— dira taldea osatzen duten bortz partaideak.

Etxe Txar izena duen etxe batean entsaiatzen dute eta izen hori eman nahi izan diote, hain zuzen ere, orain dela gutti argitaratu duten maketari.

Lehendik bertze maketa bat plazaratua izan arren, azken hau izan da, taldea bertze tokitan ere ezaguna izatera lagundu duena.



**t**alde berria zaretela kontutan harturik, lehenengo galdera derrigorrezkoa dugu. Zer dela eta hasi zinteten?

Jotzeko gogoia genuen... jende pila juntatzen ginen hasiera batean eta geroago batek kitarra bat erosi zuen. Bertzaldetik, talde bat osatu zen Lesakan "Idrisko Aulkia", eta orduan guk gure aldetik aritzea erabaki genuen.

Zoki-k animatuta Nafarroako Rock-Pop Txapelketara aurkeztu ginen eta horrela bi kanta grabatzeko aukera izan genuen. Grabazio hartan "Kanka" eta "Tierra Quemada" izena duten kantak grabatu genituen. Bigarren kanta

honetan metralleta eta rifle soinuak entzuten ziren. Uste dugu, hori dela eta, ez ginela klasifikatu ere egin, baina maketa bage-nuen.

**Kanka izena nola bururatu zitzaizuen?**

Zenbait izen izan genituen burutan, hala nola Ruidos Raros, Lapo Popular... baina azkenean Kanka-rekin gelditu ginen.

**Zuen kanten letrak nahiko erradikalak dira gehienak, zergatik hori?**

Rocka radikala da, bizia gogorra da eta ingurua latza... hori da ateratzen zaiguna, guk egunero bizitzen duguna.

**Kaleratu duzuen maketa honetan euskaraz eta erdaraz aritzen zarete, zein asmo duzue etor-**

**kizunerako?**

Bai, orain arte alde hori ez dugu sobera zaindu, arrunt espontaneo izanda. Letra batzuk euskaraz aterra zaizkigu eta bertze batzuk erdaraz. Honela atera badira zerbaitengatik izanen da eta ez dugu galdu nahi espontaneitate hori itzultzen ibiltzeagatik. Dena den euskaraz bereziki aritzeko asmoa dugu.

**Azkeneko maketa grabatzeko zein medio-rekin kontatu duzue?**

Autoprodukzioa izan da. Egin ditugun aktuzioen diruarekin ordaindu dugu maketa,... gero kopia egiteko gure sakeletik jarri dugu eta horrela 500 kopia egin ditugu. Jendearen erantzuna arrunt ona izan da, hiru astetan

500nak saldu bait ditugu.

**Maketa berririk egiteko asmorik baduzue?**

Bai, seguruenik eta jendearen erantzuna ikusirik, ditugun bertze hainbat kanta berrirekin egingen dugu.

**Eta kontziertoak kontratatzerakoan, zer moduz?**

Aunitz kostatzen da bat lortzea. 15en bat egin ditugu... Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, baina zaila da gutaz oroitzea. Okasioa probetxatzen dugu eta erran kontziertoak kontratatzeke kontaktuak hauek direla: 63 71 70 Javier eta 63 77 94 Mazi.

MIREN KARMELE



# GAIIA

**OSASUN-DENDA**  
BELARRAK-DIETETIKA  
EDERGAI NATURALAK

Hemen zuk behar zenuena

\* Hurbil eta egoki \*

- ✓ Mediku naturistarekin kontsulta
- ✓ Mehetzeko dietak eta laguntzak
- ✓ Erremedioak eritasun guztientzat
- ✓ Diabetikoentzat goxoki azukregabeak

Zatoz konfiantza osoarekin

Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

## TXOKO ERRETEGIA

Bazkari, afari eta  
gosariak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91

## ENEKEL

Bideo-klub-a

Intzakardi karrika

DONEZTEBE



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9  
DONEZTEBE

# IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA  
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

*Michel Guèrendiaïn*

SARA - LAPURDI

## G.M.G.

## GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea

Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza ttikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hillarriak...)

## OLARI

Jatetxea

Tfnoa.: (948) 45 22 54

IRURITA



## HERRIKO OSTATUA

Tfnoa.: 59 43 25

ITUREN

## XLVII. Bidasoa pilota txapelketaren finalak

ROMAN HARRIBILLAGA

Maiatzaren 13a da antolatzaileek Lesakako frontoian Bera eta Lesakako ordezkarien artean XLVII. Bidasoa Pilota Txapelketaren herrikako finala jokatzeko hautatu duten eguna. Kimu, haur, gazte eta heldu mailetan neurtuko dituzte indarrak iaz txapeldun eta azpitxapeldun gertatu ziren lesakak eta beratarren artean.

Mailako erakoak berriz, iragan maiatzaren 6an, Berako frontoian jokatuak izanen dira aldizkari hau argitaratzeko zegoenean, honako

ordezkarien artean: Lesaka — Arantza, kimu mailan; Lesaka — Arantza, haurretan; Hondarribia — Bera, gazteetan; eta Lesaka — Igantzi, helduetan.



## ”IX. Luis Mari Apeztegia” Txirrindulari Memoriala

Datorren maiatzaren 19an, Club Ciclista Beratarra-k antolaturik Beran ”IX. Luis Mari Apeztegia” Memoriala izeneko gazte mailako txirrindulari lasterketa garatuko da. Irteera, arratsaldeko 4,30etan, Alzate Plazan egingen da, ibilbide hau burutzeko: Larrakaitz, Sunbilla, Elor Txuri Jatetxea —birakuntza, Bera, Zalain, Industrialdea, Bera, Larrakaitz —birakuntza—, Bera —Alzate Plaza eta Lizuniaga Gai-na (HELMUGA); guztira 80 km inguru betez.

## Eskualdeko Kirol Koordinatzaile faltagatik hainbat eta hainbat kirol aktibitate galdu dira

MATTARI

Lau hilabete pasatu ondoren arazoak berdin jarraitzen du eta eskualdeko 25 Udalek ez dira mugitu soluzio bideak bilatzeko. Udalei zuzendutako galdera batzu plazaratu nahi nituzke; ez zaizue axola antolatu gabe gelditu diren aktibitateetan parte hartu behar zuten ehundaka haur, gazte edo heldu kirolak gabe gelditzeak? noiz arte jarraitu behar dute kirolak gabe gure Udalen axolagabekeria? —Kirol koordinatzaile munizipalok gogoratzen dizuegu guri dagokigun ingurua kirol munizipala (Baztan-Leizaran-Malerreka eta Bortziriak) eta Eskualdeko (Baztan-Bidasoa) kirol aktibitateak falta den kirol koordinatzaileari dagokiola aktibitate hauek antolatzea eta ez guri—.

**Gaur egun arte Eskualde mailan galdu diren aktibitate batzuren zerrenda hau da:**

- **Haur mailan:** larunbatero txapelketa guztiak galdu dira —atletismoa, xakea, eskubaloia, saskibaloia, herri kirolak, futbol sala ea.— mila-ka haur kirol gabe geldituz.

- **Gazte eta heldu mailan:** Herri kirol topaketak; futbito eta tenis txapelketak, futbol taldeen selekzioa bertze dibisio bateko talde baten aurkako futbol partidua, mendigoizaleen arteko bi irteera, mendietan zehar gazte mailan 10 egunetako mendi travesia, mendigoizaleen eguna.

- Aurtan ez da monitore ikastarorik izanen, Federazioekin ez bait da

konbeniorik egin —joan den urtean hainbat ikastaro egin ziren: eskubaloia, saskibaloia, tenisa, piraguismoa, pilota ea.—

- Lau zonaldeko aktibitate guztiak geldirik daude, Nafarroako Gobernuarekin konbenioa ez baita oraindik egin.

- Aurtengo kirol plangintza oraindik egin gabe dago, eta dena Kirol Koordinatzaile komarkalik ez dagoelako. —Eskualde mailan inork ere ezin du diru laguntzarik eskatu Nafarroako Gobernuarekin egin beharreko konbenioa zein den ez dakigulako—

Eta arazoa konpontzen ez den bitartean aktibitate gehiago galtzen jarraituko dute, NOIZ ARTE HORRELA?

# Gabriel Saralegi, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren zuzendari aukeratu

# a

intzinako alean aipatzen genuen bezala orain dela urte bat hasitako lanak bere fruituak eman ditu.

Martxoaren bukaeran Iruñeko "Kirol Etxean" izan zen Nafarroako Herri Kirol Federazioaren sorrerarako bilera. Bertan, estatutoak aprobatu eta Federazioaren zuzendaria aukeratu behar izan zen.

Eztabaida franko sortu zen Federazioaren izena aukeratzeko momentuan, batzuk "Federación navarra de Deportes Tradicionales" izena jarri nahi zioten eta bertzeak ordea "Nafarroako Herri Kirol Federazioa - Federación Navarra de Herri Kirolak". Bi eritzien arteko zalaparta bukatu ondoren gehien-goak bigarren izena jartzea erabaki zuen.


Onartutako bertze alegazio batzuren artean zeuden Sokatira modalitatea sartzearena alde batetik — estatutoetan ez bait zegoen — eta bertzaldetik, Federazioa, horrela erabakitzen bada edozein herri-tan ezartzea eta ez derrigo-

rez Iruñean eta azkenik, Federazio honi dagokionez, euskararekiko tratamendua kontutan hartzea.

Azkenik eta alegazio hauek sartu ondoren estatutoak onartuak izan ziren.

Bigarren puntua Federazioaren zuzendaria aukeratzearena zen, horretarako bi kandidatura aurkeztu zirelarik: alde batetik orain arte zegoen Pablo Perez de Ciriza eta bertze aldetik Gabriel Saralegi Leizarra. Botazioa egin ondoren Gabriel Saralegi suertatu zen aukeratua zuzendari posturako. Aukeratua izan baino lehen, Saralegik bere programa aurkeztu zuen:

- 1.— Nafarroa mailan azpiegitura sortzea.
- 2.— Bertze probintziatiko Federazioekin harremanak bultzatzea eta elkar lanean aritzea.
- 3.— Nafarroako Gobernuarekin konbenioa sinatzeko Kirol Programa bat egitea.
  - a.— Haur mailan: Herri kirolak Nafarroako haur jokuetan parte hartzea. —



Saralegi, Nafarroako Herri Kirol Federazioaren zuzendaria

Joku hauek Nafarroako Gobernuak subentzionatzen ditu—.

b.— Afizionatu mailan: "Herriz-herri" kanpaina bultzatzea -herrietako bestak aprobetxatuz, herrietako taldeak txapelketetan sartzeta—.

d.- Profesional mailan:

- Txapelketen antolaketa
- Exhibizioen antolaketa
- Errekord berrien antolaketa
- e.— Orokorki:
  - Gaur egun ospatzen diren txapelketak mantentzea — San Ferminetakoa, herrietakoak etabar—.
  - Irailan zazpi probintziatiko IV Herri Kirol Txapelketa antolatzea.
  - Hitzaldiak, erakusketak, etabar antolatzea kirol hau bultzatzeko asmoz.

MATTARI


## Bete ezin diren hutsuneak

- ✓ Bizia astuna eta monotonoa egiten zaigunean.
- ✓ Gure lanak betetzen ez gaituenean.
- ✓ Jendearekin konektatzen ez dugunean.
- ✓ Gure bikotearekin dugun harremanak asetzen ez gaituenean.
- ✓ Itxaropenik gabe aurkitzen garenean eta etorkizunik ikusten ez dugunean.
- ✓ Gure bizitzari zentzurik bilatzen ez diogunean.
- ✓ Bakarrik gaudenean eta gure egoerak inori inportik ez diola iduritzen zaigunean.
- ✓ Estutasunak lotzen gaituenean eta gure izateko modua gustatzen ez zaigunean.

Irtenbidea ez da alkohola

Gure barruan bilatu behar genuke eta han aurkituko dugu.

Horretan laguntzea nahi baduzu, dei iezaiguzu: Osasun Mentaleko Zentrua; Tfnoa.: 12 96 22



NAFARROAKO  
OSASUN MENTALEKO TALDEA



Horoskopoa

# Tauro,... "zezena"

**M**itologian zezen saila agertzen zaigu, beharba-daezagunena Kretako Minotauro-arena dugu. Bertze kondaira batek dioenez, Europa

izeneko neska ederra biltzearren, Zeus zezen zuriz mozarrotu zen eta bizkar gainean eraman zuen neska-toa. Bere itxurara itzuli ondoren, zeruan jarri zuen zezena.

## Udaberria bete-betean

Guti gora-behera apirilaren 21etik maiatzaren 21era irauten du. Aries-ekin sortutako bizi berria Tauro-rekin sendotu eta indartzen da: hilabete honetan ia landare guztien lore eta hostoak benetan dagokien *forma* hartzen dute.

## Tauro arketipoa

Tauro da bigarren zeinua; *negatiboa*, *fijoa* eta *lur* elementu-koa. Negatibotasunak errezeptiboa dela adierazten du, barnerakoaia. Fijo kualitateak estabilitatea ematen dio, aldaketak ez ditu gogoko. Eta lur elementuak praktikoa izatea eta errealtatearen zentzua ematen dio.

"Zerbaiten jabe" izatea hagitz garrantzitsua da Tauro-rentzat, segurtasuna ematen dio. Taurok ez du gogoko behar ez diren arriskutan sartzea. Pazientzi haundikoa denez bakan haserretzen da, baina orduan, kasu eman berarekin.

Negozioetarako balio dutela erraten da, dirua egiten eta zaintzen dakiela. Bere segurtasun falta, azaleko luxu eta harmoniarekin gordetzen du.

Zeinu honetako jendeak, ongi jokatzeko, kontzentrazioa eta aurretik prestatutako plan bat behar izaten dute.

Zorionak Tauro guztiei!!



FERMIN ALTZUGUREN

**ETXEBIZITZAK**

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Doneztebe.** Pisu bat alokatzen da bi bizitzako etxe batetan; baratze eta guzi. Hilean 12.000 pza. eta 4 urtetarako kontratua. Tfnoa: 594054

-**Arantza.** Baserri baten berri ematen da. Argia, ura eta telefonoa-ekin. 3 hektarea. 7.500.000. Ezkalo. (948) 594054.

-**Doneztebe.** Pisu baten berri ematen da. Sukalde ekipatua, propa- no kalefakzioa, 3 logela, egongela lurko suarekin, despentsa, bainua eta ganbara. 90m<sup>2</sup>erabilgarri. 6.500.000 Ezkalo (948) 594054

-**Legasa.** Pisu baten berri ematen da. Sukaldea, 3 logela, egongela eta bainua. 90 m<sup>2</sup>. 4.900.000. Ezkalo. (948) 594054

**LANA**

-**Denda batetan edo haurrak zaintzen** egin nahi nuke lan. 16 urte ditut. Tfnoa: 594054

-**Igeltsero laguntzailea** behar da. Doneztebe aldean lan egiteko eta 16 - 19 urtetakoa. 6 hilabetetik 3 urtera- teko kontratua eginen zaio. Tfnoa: 594054

-**Frantzes klaseak** Silvia Mazi- zior-ekin. Tfnoa: 630108

**SALEROSKETAK**

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Sukalde eta frigorifiko** indus- trialak saldu edo etxerakoez aldatu nahi ditugu. Tfnoa: 637 854

-**Idazmakina elektronikoa** sal- tzen da. CANON markakoa. Intere- satzen bazaizu deitu 631188 telefo- nora.

-**Era guzietako mobleak** erosten ditut. Eskura ordaintzen dut. Tfnoa: 59 40 54

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenentziako pre- zioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Astebu- rutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauzez.

-**Baserri bat dago salgai** Bazta- nen; lasaitasunez betetako "Orabi- dea" parajea. Belagi eta bertze hain- bertze herri-lur roturatuak erabiltze- ko eskubidea. Kontaktatzeko deitu 58 90 11 telefonora.

-**Bigarren eskuko altzarien** be- rri ematen da. Egokiak alokatutako pisuak mogleztatzeko. Tfnoa: 594054

-**Akordeoi bat daukat** saltzeko, 96 bajoko Parrot markakoa. Urte batez erabilia eta hagitz ongi dagoe- na. Tfnoa: 515046 Saldias.

**DENETARIK**

-**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ain- ho. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.

-**Pegatina kolekzio** bat egiten ari naiz. Sobrante dituzuenak, bidal it- zazue direkzio honetara: Aintzane Erkizia, Legar Baratzea 2, 3.D, Lesa- ka.

-**Era guzietako mobleak berri- tzen** ditut prezio onean. Nola zaindu behar diren ere aholkatzen dut. Tfnoa: 594054.

-**Tasazioak egiten dira.** Etxeak, baserriak, mendiak, bordak... Ezka- lo. (948) 594054

**HARREMANAK**

-**AEKkoek** ea zergatik bota di- tuzten orain IKAKoak direnak jakin nahi nuke eta baita ere zer diferentzi dagoen orain bi alderdien artean.

-**Hernaniko** Juan Batti, Eneko, Antton, Joxe eta Feliperi. Noiz ikusi- ko gara berriro? Julian Gayarrerren etxean edo Isaban? 5. Maitane.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBAL- DEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

*ttipi-ttapa*

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



			Galiziarra	Zehar jarria		
			Atzizkia	Bt		
		Zuri, Balu				
		Kolore mota				
				Ez eme		
		Lehen mozkor biblikoa	Enegana			
Zinema			Bazterra			
				Ipar. Orain		
				Epelak		
Galde-tzailea			Taberna			500
			Bigarren pertsona			Dozena erdia
					Bete	
					Indioa	
Zero		Emakume izena				
		Musika nota				Bihia
			Gaizkiaren aurkakoa			
			XI. hilabete			
Helioa	Bokala		Bokal bikoitza		Oxigenoa	
	Bihar eta gero		Buka		Gizonezko guraso	Nitrogeno
		Juntagailu				
Seta				Idi, hitz elkar.		Bokala
				Iodoa		Interjekzio
Trebe				Aezkoar		

■ Senpere ondoko herriak

ENBIDO





TRAKTORE ARTIKULATUAK ETA TRINKOAK  
20 HPtik 80HP BITARTEKOAK



NAFARROA OSORAKO BANATZAILEAK  
GUILLERMO TXOPERENA eta LUIS GOÑI GARISOAIN  
IGANTZI - Tfnoa (948) 63 79 95

# AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13  
Tfnoa.: (948) 59 44 00  
DONEZTEBE